



Zurriolako Ataria

28. alea

2018-06-22



50. URTEURRENEKO IRUDIA HAUXE DA! Estitxu Zubeldia Zurriolako ikasle ohi, guraso eta arte irakasleak diseinatu du Ikastolako 50. urteurreneko logoa. Besteak beste, zinta-dantza gogora ekarri nahi duen kolore askotariko, hau da, izaera eta ezaugarri askotariko ikaslearen presentzia agertu nahi izan da logotipo honetan.
URRIAREN 8an beteko ditu 50 urte Zurriolak, beraz, oporrak eta gero... festa!

Soroako ikasturte amaiera

Aurtengo ikasturte amaiera ekintzaz beteta egon da. Besteak beste ipuin kontaketa, tronpeta kontzertua, olinpiadak, uraren festa, dantza saioa 5 urtekoen eskutik, txokolatada...



HH2 eta LH4ko ikasleak Uliako Lore-baratzetan

2 urtekoek eta LH4ek Uliako lore baratzetan goiz ederra igaro zuten elkarrekin: txalburuak harrapatzen, bizkotxoak egiten, hondarrarekin jolasean, dantzan...



Bizi Bizia Berhezi proiektua

Proiektu honetan parte hartze prozesu bat abiatu zen ekainaren 4ean gure ikastolan. HH5 eta LH3 arteko 300 haurrek parte hartu dute eta ateratako ideiekin maketa bat osatu dute proiektuaren hezitzaileek.



Agur ekitaldia - LH4

Ategorrietan 4. mailako lagunen agur ekitaldia izan dugu. Antzerki, dantza, txiste eta rap-ekin esan digute agur datorren ikasturtean Hurrara joango diren lagunek.



FIE singing and dancing - LH6. mailakoak koreografia ikusgarrian.

GIELMAR elkarte DBH1ekin

Gipuzkoako Elbarrituak Martxan elkarteko Pablo, Conchi eta Andres etorri dira DBH1ekoekin tailer bat egitera. Ikasgelan hainbat ekintza egin ostean, jolas inklusiboak egin dituzte atarian.



Boleibol eta antzerkia - DBH

Aurreko ostiralean DBH4ko ikasle guztiek boleiboleko txapelketaxo bat jolastu zuten zurriolako hondartzan dauden zelaietan. Ondoren, DBH4 eta 3koak Antiguako Kultur Etxean DBH4ko ikaskideen prestatutako antzezlanara ikusi ahal izan zuten.



Bikain ziertagiria lortu dugu

Zurriola Ikaskolak Goi mailako euskararen kalitatezko ziertagiria lortu berri du. Lortutako puntuazio-emaizta, gainera ezin hobea izan da.



Ikasturte honetako azken Ataria

28. ale hau duzue ikasturte honetako azken *Ataria*. Barne komunikazio eta elkar-ezagutzarako erraminta honek *laster arte* esaten dizue. Hortaz, iraila bitarteko ohiko ohar eta jakinarazpenak bestelako bideetatik jasoko dituzue.



OHARRAK / AGENDA:

- **DBH1:** Liburu salmenta. Antolaketa laguntza. [Zirkularra](#).